


Oihan menditarretako oilar erraldoia

Joxerra Aihartza



FITXA TEKNIKOA

Basoilarra

Espezia:	<i>Tetrao urogallus</i>
Familia:	tetraonidoak
Ordena:	galiformeak
Klasea:	hegaztiak


Basoilarra, berez, hegazti paleoartikoa dugu, bere bizilekua batez ere Eurasiako iparraldeko taiga zabaletan duelarik. Europako erdialdean eta hegoaldean berriz, hegaztiak inguru menditarretan bilatu behar izan du babes, bai klima epeltzearen ondorioz, eta bai gizakiaren presio gupidagabeari

ihes egiteko beharrak bultzaturik. Horregatik Iberiar penintsulan basoilarra Kantaurialdeko mendietan eta Pirinioetan aurki daiteke, azken mendikatea honetan bereziki iparraldeko isurialdean eta Aragoa zein Kataluniako zenbait basotan aurki daitekeelarik. Euskal Herriari dagokionez berriz, Nafarroa eta Zuberoako mugetan aurki daiteke Larran eta inguruko bazterretan, bertako pagadi, izeidi eta mendi-pinudien babesean (eta hor ere nahikoa populazio urria mantentzen dela esan behar da; Purroyk 1974.ean sei bat ale bizi zirela esaten baitzuen, J. Elosegik berriz 1985.ean 10 eta 20 hegazti bitarteko populazioa deektatu zuelarik.

Basoilarra oihan menditarretan bizi den gallinazeo erraldoia dugu, eta bere biologiari dagokionez, ageri duen dimorfismo sexual nabaria, arren eta emeen bizimoduaren arteko ezberdintasun handiaren islada dela esan daiteke. Basoilar arrak hegazti handi eta ikusgarriak dira, 85 cm inguruko luzera eta 3.500-4.500 g bitarteko pisua lortzen dutelarik. Euren itxurari dagokionez, janzkera ilun baina deigarri apaindutako hegaztiak ditugu: hegal gaineke kolorea arren iluna den artean, lepaldeko lumek distira berde urdinskaz hornitutako beltz gordina ageri dute, bularrean eta isats gainean berriz gris iluna nagusi delarik. Moko zuriska eta bekain gorri bizia dira animalaren itxura lotsagabe eta harroa osatzen duten ezaugarriak. Emeari dagokionez, berriz, tamaina eta janzkera apalxeagoak ageri ditu. Basoilar emea ez da 62 cm-ko luzeratik gorakoa izaten, eta bere pisua 1.500 eta 2.300 g bitartekoa izaten da — arrarenaren erdia!—. Lumaiari dagokionez ere, honek kolorazio arren gorritzat pintarratu eta kriptikoa du; oihanetako sastraketan ez ikusteko aproposa, alegia. Ezberdintasun hauek, ugaltzeko orduan sexu biek dituzten jokabide eta betebeharrak ezberdinekin er-

“Hegaztin guti da larre-oilarra baino ederragorik. Bat nunbeit agertzen deneko, badabilkio segurki ihiztari ondotik! Damurik ari da galtzen egunetik egunerat mota!”





Basoilar emeak kolorazio arre gorritzat pintarratu eta kriptikoa du; oihanetako sastraketan ez ikusteko aproposa, alegia.

lazonaturik daude, noski. Maiazaren bukaeran edo ekainaren hasieran, basoilar arrak basoko argiunetan biltzen dira, egunsenti aurretik, bertan euren "kantu" bixia lau haizetara zabaltzeari ekiten diotelarik (emerren bat erakarrri asmoz). Eta lan honetan itxura deigarri samarra izatea komeni daiteke. Kantatzeko leku bakoi-tzean bildutako hiruzpalau arrak leiha bizian aritzen dira, lumak harrotuta eta elkarri aurre eginez, norgehiagoka bizian. Eta jokabide horri eutsi behar izaten diote, emerren bat ernaltzeko prest izan, eta bertara hurbiltzen den artean. Orduan ere, emeak arrik "egokie-na" aukeratuko du, eta ernaldia izan ondoren, basora alde egiten du habia egitera, bakarrik, arrak kantatzeko lekuan beste emerren bat iritsi zain geratuko direlarik. Eta lan honek arrisku nabariak ditu. Izan ere, eta sarritan besterik uste den arren, basoilarren kantua ez da hain ozena izaten. Aitzitik, nahikoa hurbil behar da izan entzun ahal izateko. Bestalde, basoilarra kantari ari deneko "zentzu gabezia" ere mitoa dela esan behar da, eta ezer hurbiltzen bazaio berehala konturatzen da, noski, ihes egiten duelarik. Baina

hala ere, ugalketan arrakastarik izango badu, arrak denbora luzez egon behar du kantatzeko lekuan, emeei deika eta beste arrekin lehian, eta horrek izugarri murrizten du ar horren biziraupen-itxaropena, ehiztariek edota bestelako harrapariak atzemateko probabilitatea handiagoa delako. Ernalketa burutu ostean, emearena izanen da ugalketa burutze-ko ardura osoa. Sastraka edo zuhaitz-ipurdiaren bat aukeratu, eta bertan, lurrian eraikitako habian, arrez pintarratutako 5-11 arrautza zuri horiska errungo ditu, hauen txitaketa 24-26 egunez luzatuko delarik. Txitoak nidifugoak dira, eta jaio bezain laster habiatik irten, eta inguruko sastraketan ezkutatu dira. Hauek, ama bezala, lumaska arre gorritzat kriptikoa jantzita egoten dira, burua eta lepoa horizta, eta bizkarraldea hori, arre eta beltzez pintarratua ageri dutelarik. Lehen hilabeteetan zehar, txito hauek ornogabeez elikatu-ko dira, eta azkar haziko dira, bi aste t'erdi dauzkatenarako jadanik hegaldi laburra egiteko gai izanen direlarik. Bigarren hilabete-terako euren dieta aldatzen hasia izango da, eta pixkanaka beren gurasoen elikadura beretsua ustiatzen hasiko dira, basoko lurzoruan, intsektuez gainera, kimuak, haziak, fruituak, etab. bilatuko dituztelarik. Negua iristen denean, eta elurak bazka estaltzen duelarik, basoilarren beste-

lako baliabideak ustiatzeko joera du, eta sasoi horretan pinu eta izeien azikulez elikatzen da. Bestalde, eta negua latzegia suertatuz gero, migrazio edo mugimendu txikiak ere egin ditzake bere ohizko bizilekutik at, baldintza leunagoen bila.

Emeei dagokienez, hauek urtea bete orduko ugaltzeko gai izaten dira, baina arrek ez dute ahalmen hori bi edo hiru urte bete arte eskuratzen. Hori arren arteko lehiakidetzat sexual latzarekin erlazionatzen da. Izan ere, kantatzeko lekuetan biltzen diren arren artean sendoenek lortzen dute emerren bat estaltzea.

Gainerako gallinazeo gehienetan bezala, basoilarren kasuan ere txitaldi bakoitzeko arrautza-kopuru handia hilkortasun-tasa garrantzitsuarekin lotu behar da.



Negua iristen denean, eta elurak bazka estaltzen duelarik, basoilarren beste- lako baliabideak ustiatzeko joera du, eta urtesasoi horretan pinu eta izeien azikulez elikatzen da, bere gorotzek salatzen dutenez.

Basoilarren txitoek hilkortasun-tasa handia dute lehen hilabeteetan, jaiotako guztien % 90 eguraldia txarra deneko urteetan lehen urtea bete baino lehen hil daitezkeelarik. Bestalde, heldu ugaltzaileen artean urteko hilkortasun-tasa % 40tik gorakoa izan daiteke baldintza naturaletan. Ez da harritzekoa, beraz, gehiegizko ehiza-presioak hegazti hau ia galtzeraino eraman izana. Eta ugalduko bada, urte luzetan babestu beharra eskatuko digu, zalantzarik gabe.

